

SUAREZ JAUNA

Igor Mercado Azkuenaga

Irudiak: Xabier Pérez Sánchez

XXXVII Erretereria Hiria Ipuin Lehiaketaren euskara modalitatearen irabazlea.
Ereintza Elkarteak antolatua, Erretereriako Udalaren babesarekin.

Suarez jauna betidanik ezagutzen genuen. Tira, agian ezagutu esatea gehiegizkoa litzateke. Bizilagunak ginen, hamarkadak generamatzan parez pare bizi.

Berbarako, gure egongelako pareta batek haien etxeko gelaren batera ematen zuen eta nahi baino gehiagotan adi genitzakeen bikotearen oihu, eztabaida, gol ospakizun eta aipatzea merezi ez duen zarataren bat edo beste.

Suarez jauna hasieratik iruditu zitzaigun arranditsu samarra. Zaputza, bere bizitzari buruz gauzarik txikiena

kontatzeko beldurretan balego bezala. Ozta-ozta agurtzen zuen igogailuan, solaserako edozein aukera hutsalduz. Bere emazteak ere antzeko uzkurkeria zerabilen. Gurean, nire emaztea, semea eta hirurok, azkar ohitu ginen azaleko harreman hartara. Edonola, beti pentsatu izan dut hoztasun haren jatorria Suarez jaunaren lanpostuan zetzala. Enpresa pribatu bateko goi kargua izaki, bestean gainetik zegoela uste izango zuen.

Traturik ezean, auzoan jarritako eskela batek eman zigun Suarez jaunaren emaztearen heriotzaren berri. Bizilagunek ziotenagatik aspalditik zebilen osasunez makal, harritzekoa ez zena gu guztion adinean erreparatuz gero. Bizilegea, erretiroa hartzeak dakartzan albo-kalteak.

Emaztea eta biok hileta-elizkizunetara agertu ginen. Hurkoa arropa eta itxuren arabera epaitu beharko bagenu, jende garrantzitsua bildu zen Suarez en andreari azken agurra ematera. Suarez jauna bera sendo bezain dotore begitandu zitzaigun. Doluminak adierazi genizkion, edozer behar izatekotan txirrina jotzea besterik ez zuela. Birritan errepikatu zion emazteak, traje beltz dotoreko beste norbaitek Suarez jaunaren atentzioa bereganatu aitzin. Segundo eskasetako berbaldia izan zen, bildutako jendetza aintzat harturik alargunak nor agurtu zuen eta nor ez nekez gogoratzeko modukoa.

Egun batzuen buruan, telebistan gaueko albistegia ikusten geundela, norbaitek txirrina jo zuen. Gogor, presaka balitz bezala. Saltzaile astuna edo lapurra, pentsatu nuen atoa, desordutako deiak asalaturik. Atea irekitzean ordea, Suarez jauna genuen aurrez aurre. Hitz egiten ahalegindu zen, baina ez zitzaizkion berbak ateratzen. Totelka ari zen, bi silaba uztartu ezinik, harik eta atarian bertan konortea galdu eta ziplo erori zen arte.

Etxean sartu genuen, sofán etzan eta medikua deitu. Honen arabera, estres postraumatiko kasu argia zen. Gaixoak itoko denaren sentsazioa izan ohi du halakoetan, hortik Suarez jaunak gugana jo izana laguntza bila. Deskantsua eta lasaitasuna, horiexek sendabideak.

Semeak aspaldi libratu-rik logelan sartu genuen bizilaguna. Biharamunean berandu eta nahasita altxatu zen. Gosariarekin bat bart jazotakoa azaldu genion; buruarekin baietz esan eta berarengan ohikoa zen berba urritasuna erakutsita, ondobidean zegoen seinale ene uste apalean, sofán hartu zuen atsedean jarraian. Orduak eman zituen bertan telebistari so isil-isilik, bazkalorduan mokaduren bat ahoratu eta sofán eseriz atzera.

Suarez jaunaren jokabide bitxiak ene arreta eta jakin-mina piztu zituen lehenengo momentu batean. Urtetan ezkuta zigun nortasunari buruzko zerbait aditzera emango zigula zirudien, bere bizitza hobeto ulertzeko zantzuren bat edo beste. Edonola, mututasun eta


aldarte goibel haren atzetik zer ezkuta zezakeen misterioa zen guretzat. Emazteak zuzentzen zizkion galdera praktikoei erantzuten zion soilik, alde aurretik programaturiko esaldi laburrekin beti ere. “Posible bada”, “axola ez zaizuen bitartean” edota “traba ez naizen heinean” bezalako ihardespak zituen ahoan prest emazteak gurean bazkaltzen edo lotan geratuko zen galdetzen zion bakoitzean.

Konturatzerako, Suarez jaunak astea bete zuen gure etxean bertatik alde egiteko asmorik txikiena adierazi gabe. Ondo deritzot besteak laguntzeari, are gure adinean, eritasunen bat ez denean bakardadeak erasaten gaituen honetan, baina Suarez jaunaren jokabidea erabat gehiegizkoa zen. Emazteak, aldiz, maizter berriaren ezkutuko zioak hobeto atzematen omen zituen; edo gutxienez enpatikoago agertzen zen.

- Ez du seme-alabarik, ez zainduko duen norbait - esaten zidan.
- Eta hiletara agertu zirenak? Bestelako seniderik izango du, diot nik.
- Bi edo hirurentzat sukaldatzea berdina da, ez arduratu - justifikatzen zuen.

Egunen joan-etorriarekin egoerara ohizetik urrun, are gehiago urduritzen nintzen, are gutxiago ulertzen emaztearen desenkusak eta Suarez jaunaren bizimodua, egun osoa ematen baitzuen sofán etzanda. Hoberantz zihoala ematen zuen, eguerdiko nahiz gaueko albistegiak ikusten amaitu orduko telebistako urrutiko agintearen jaun eta jabe egiten baitzen. Kate ultraeskuindar bat jartzen zuen orduan, filme zaharrak pasatzen zituelako. Westernak eta Hollywoodeko izar ahaztuak genituen pantailan etengabeko emanaldian, beraz.

Batzuetan, begirada telebistatik aldendu gabe, iruzkin lakonikoak egiten zituen. “Billy Wilder, zein ona”; edo “80tik aurrera ezer ez”; edo “zinea hilda dago”. Hortik tira egin genezakeen itxaropena sortu zitzaidan barrenean baina oso gutxira jabetu nintzen komentario horiek guztiak ez zirela guretzako, bere buruari egindakoak baizik. Bost axola zitzaion gu han, gure etxean!, egotea edo ez beharrianak mantendurik izan bitartean. Bere ezkon-bizitza halakoxea izan zen hipotesia zebilkidan buruan, are ene emaztea arropa garbitu eta lisatzen hasi zitzaionean.



“Nolatan ez diot hori egingo, bada? Nork eta zuk gainera halakorik esatea ere! Gixajoari emazteak dena egingo zion; ea zuk noiz ikasten duzun arrautzak frijitzen, osterantzean...”, aurpegiatzen zidan, balizko etorkizun beldurgarri batek ekar ziezadakeena iradokituz.

Gurean eginiko laugarren aстера heltzear ginela ez nuen jada pazientziarik gordetzen nire baitan. Ez zuen ezer egiten, ezta ekarpenik txikiena ere, zer dakit nik, mahaia batu edo ohea egin sikiera. Ez emateagatik ez zuen ezta elkarriketarik ematen. Gu zenbat eta deserosoago, orduan eta gusturago Suarez jauna. Gainera, emaztea eta biok ezin gintezkeen elkarrekin kalera atera, zer gerta ere. Hortaz, txandaka irteten ginen, goizean erosketak egitera bata, arratsaldean mezetara bestea. Hurrengo egunean alderantziz. Gatibu ginen etxean.

Etiket kanporatu behar nuen nola edo hala. Emazteak, bestalde, ez zuen afera argi ikusten eta bibliako pasarteak errezitatzen zizkidan ahapeka, Suarez jaunak ez entzuteko moduan: “Hebrearrei 13: 1-2: neba-arreben gisara elkar maitatzen jarrai ezazue. Ez ahaztu abegitsu izatea, horri esker batzuek, jakin barik, aingeruei aterpe eman baitzieten”. Gisako esaldien errukiak gutxi irauten zuen nigan ordea, sofán apopilo genuen bizkarroia begiratzen nuen bakoitzean sutan jartzen bainintzen. Azkenerako, aurpegian sumina igertzen zitzaidala eta, emazteak “gure eskuetan dagoena egin behar dugu, hori da kristau on batek egingo lukeena” letania errepikatzeari lotu zitzaion.

Kasu egin nion; nire modura ordea, Suarez jauna gogaitzeko estrategia abian jarritz. Hasieran leun, igandeetako dantzaldira joateko xaxatzen nuen; edo zineklubera, edo museora, edo paseoan, berdín zitzaidan.

Alferrik zenez, gogorrago jokatzen hasi nintzen, emaztea urrun zegoenetan batez ere, gure etxetik zuzenean alde egiteko eskatuz. “Hau ez da hotel bat” esatera ere heldu nintzaion. Alabaina, emazteari emandako erantzun berdínak baizik ez nituen jasoko; “enbarazu ez badizuet egiten” eta gisakoak, zeinahi zelarik galdera. Ez zuen ulertzen, ez zen egoeraz jabetu nahi edo dagoeneko burua galtzen hasia zen. Denak ala denak nik konpondu ezinako arazoak izan arren, nire bizitzan eragin zuzena zutenak.

Beraz, emaztea merkatura jaitzi zen goiz batez, Suarez jaunak gurekin emandako berrogeita hamaikagarren egunean, sofáraino joan eta alde egiteko agindu nion. Erantzunik ezean, behakoa pantailatik bereizi ezinik, besapeetatik oratu eta arrastaka eraman nuen atariraino. Eskailburuan paretaren kontra bermaturik eserita uzterakoan ere ez zuen eragozpenik jarri. Erresistentzia pasiboa, agidanez.

Erosketak egitetik itzuli zenean emazteak gaizki hartu zuen Suarez jaunaren egozpena. Behin eta berriz zeinatu eta ene kupida falta aurpegiatu zidan. Bazkalosterako, sofán lo kuluxka egin eta nahi zuen telebista katea sintonizatu ondoren, haserrea zeharo ahazturik zeukan.

Aitzitik, arratsaldean kaleratu eta gau partean etxeratzean Suarez jauna goizean utzitako tokian topatu genuen, zirkinik egin gabe. Alu halakoa ez zen sikiera bere etxean sartzeko gai izan. Amarrua zatekeen, gure bihotza bigundu eta atzera onar genezan, hurrengo hiruzpalau egunak bertatik altxatu gabe eman izan ez balitu. Zerbait egin behar genuenez, mediku edota polizia hotz egitea otu zitzaigun.

Osasun zerbitzuek txantxetan ote genbiltzan galdetu ziguten, hura ez ei zelako larrialdia. Erantzuna ikusita, poliziari deitzea alferrik zela ondorioztatu genuen; gainera, laguntza bila joandako kasu bakanetan ez gintuzten batere ondo atenditu. Izan ere, garai batean ijito batzuk astebururo zetozen auzora, etxe guztietatik eskean aritzera. Gogaikarria eta astuna bilakatu zitzaigun ezezkoak ematen ibili beharra eta udaltzainei esku hartzeko eskatu genienean, eskaleena “eskubide konstituzionala” zela esan ziguten, ez zegoela ez ein lege hori debekatzen zuenik.

Hamaika deiren ostean lortu genuen udaleko zerbitzu sozialekin hitz egitea. Bi gizarte langile hurbildu ziren baina, gazte haien aburuz, Suarez jauna ondo omen zegoen. Hizketaldi labur baten ondotik, eskailburuan jarraitu nahi zuela adierazi omen zien; are, langileek ez zioten eritasun psikologikorik atzeman. Ez zen inorentzat arrisku, ezta bere buruarentzat ere, laburbildu ziguten gazteek. Jakina biziraungo zuela, emazteak otorduro jatekoa eramaten zion-eta. Errukirik ezean bizirik iraungo ez zuela ikusteko ezgai ziren erakundeak. Itsu onenean, ez bazen nahita uzten zutela agure batzuen bizkar hurkoa zaintzearen gizarte-lana.

Beraz, emazteak jarraitu zuen hirurontzako sukaldatzen, eskailburura plater beroak eramaten. Suarez jaunak ez zion sekula esker oneko hitzik zuzendu. Egunero janaria aurrean izateak eramango zuen atentzioa gutxiestera. Alabaina, gizonaren ohikeria hizpide ateratzen nuen bakoitzero emazteak ez zion garrantzirik ematen. Hartara, jateko gehiagorik ez ematea proposatu nuen, horrek Suarez jauna hauspotuko zuelakoan. Emaztea, ordea, hori egiteko erabat ezgai zen. Ekintza on haiek guztiek bere buruarekin ondo sentiarazten zuten. Are, beragatik egiten zituen, ez hainbeste Suarez jaunak pizten zion errukiagatik.

Suarez jaunaren sabelaren hornitzeak, beraz, ez zuen etenik izan. Egunak, asteak eta hilabeteen kontua galdu nuen azkenerako, nigan apenas eraginik ez zuen errutina hartan murgildurik. Noizean behin, eskailburutik igarotzerakoan aditzen nuen usain desatseginak bultzaturik, edo bere txima eta arropa higatuak ikusteak sorrarazten zidan higuina tarteko, bere presentzia agerikoagoa egiten zitzaidan, haserretzeko punturaino. “Noiz utziko dio biktima izateari?”; “noiz uko egingo dio baliaezintasun horri?”, galdetzen nion halakoetan emazteari. Erantzunik ez sekula, haatik.

Udaberriko goiz batez kalera irten ginenean ez genuen, alabaina, Suarez jauna eskailburuan topatu. Behinola gure egongelara iragazten ziren zaratak ere ez genituen aditu hurrengo egunetan; postontzia propaganda eta gutunez lepo zuen, etxeratu ez zen seinale. Eta auzoan ezagutzen zutenek, noski, ez zekiten ezer berari buruz. Okerrago: ez zegoen ezer jakiterik. Joana zen, inori ezer esan gabe.

Urteak joan dira, asko gainera, Suarez jauna gure bizitzatik desagertu zenetik. Bere etxebizitzak itxirik dirau ordutik, bizilagun komunitatearekin ez du zorrik eta, espero bezala, ez da gure inguruko inorekin kontaktuan jarri. Eskeletan ere ez da haren izena agertu. Emazteak eta biok, aitzitik, gomutan dugu Suarez jauna. Eta amorrua ematen digu ez jakiteak ondo dagoen, zertan dabilen, zein zen bere jokamoldearen azken arrazoia. Berari galdetu ahal izatekotan ere, litekeena da erantzunik ez jasotzea. Gehien jota, “eragozpenik ez baduzue” edo gisakoren bat esango luke. Batzuetan, ni ere Suarez jaunaren esaldi maiztuekin zuzentzen natzaio txantxetan emazteari. Irribarre egiten dit berak, ezti, baina ekidin ezin dezakegun sentsazio gazigozo batek hartzen gaitu segituan. Egun Suarez jaunaren ausentziak traba egingo baligu bezala.

